

MUGARIK GABE

(Sara García, azken 20 urteetan ESA-arentzat astronauta gisa erreserba plaza lortu duen lehen emakume espainiarra)

Nork ez du noizbait amestu espaziora joatea? Unibertsoa denoi miresgarria zein beldurgarria iruditzen zaigun leku bat da, amaigabea eta ia ezagutugabea. Gizakiak betidanik izan du unibertsoarekiko jakin-mina. Baina espazioa, milaka sekretu izkututzen dituen leku infinitua da, eta gutxi batzuk bakarrik iritsi daitezke horiek ezagutzera. Sara García dugu horietako bat.

Ikasketak:

Sara García, Leoneko Unibertsitateko bioteknologia graduan lizentziatua, gradu berean eta minbiziaren biologia molekularrean masterra duen, eta Salamankako Unibertsitatean traslazio medikuntzan doktoretza eskuratutako emakumea da. Horrez gain, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionalean (CNIO) ikertzaile gisa lan egin zuen, farmakoak bilatuz minbiziaren sendagai gisa.

2019an, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionalean (CNIO) ikertzaile lana burutzen hasi zen, gaur egun arte. Han, biriketako eta pankreako minbiziaren aurkako farmako berriak aurkitzeko proiektu batean ibili zen.

2022ko azaroan, Europako Espazio Agentziak (ESA) Sara hautatu zuen astronauta erreserba gisa. Pablo Álvarez leondarrarekin batera, Europako Espazio Agentziaren nazioarteko programara joateko 17 hautatuetako bat izan zen. 23.000 pertsonari aurre eta 18 hilabeteko probak egin ondoren, berak dio zailena prozesua bera izan zela. Hautatutako azken espainiarra Pedro Duque izan zen 1992an, eta geroztik, ez zen espainiarrik hautatua izan programarako.

Hala ere, bere helburua egindako ikasketak gizartea hobetuko zuen zer bait egiteko balio izatea eta, aldi berean, minbiziaren aurkako tratamenduaren inguruko ikerketarekin aurrera egitea zen.



ESA-n sartzeko probak eta zailtasunak:

Harrigarria badirudi ere, ESAREN deialdietara aurkezten diren emakume kopurua gizonena baino askoz txikiagoa izan arren, probek aurrera egin ahala haien arteko kopuru hori berdindu egiten da. Beste hitz batzuetan, emakume gutxiago aurkezten dira, baina gizonek baino emaitza hobekiak lortzen dituzte probetan. Sara beraren hitzetan “Emakume astronautarik ez badago zerbaitegatik izango dela pentsatzen dugu, edo agian oso profil zehatza bilatuko dutela... Ziur ezin duzula lortu. Askotan gu gara mugatzen garenak, kontuan hartuta kanpotik nahikoa oztupo jarri dizkigutela urte guzti hauetan...”

Sara Garciak prozesu osoa laburbildu beharko balu, gauza bakar batean izango litzateke. Presiopean lasaitasuna mantentzen jakitea. Zentzu psikologiko, fisiko eta intelektualean. Lasai egoteko gaitasuna izatea eta arazoan aurrean konponbidea bilatzen jakitea. Hori izan baita zentzu guztietan ebaluatu izan dutena. Hau da, prozesu psikologikoa da guztiz. Gainera, interes pertsonalen aurrean taldeari lehentasuna eman izana baloratu izan dute alderdi guztietan .

Askok esango lukete txikitatik izan dutela astronauta izatearen ametsa. Hori, ordea, ez da Sararen kasua.

2021ean ESAk (The European space agency) astronauta postuetarako lehen deialdiak ireki zituen, azken aldikoak 2008koak izanik. Erantzun gisa, ESAk 23000 eskaera inguru jaso zituen, Europako estatu kide guztietatik etorriak.

Urteetan behin igarotako trenan behin pasa eta Sara bertara igo zen . Eskatutako baldintza guztiak betetzen zituela ikusita, deialdietan izena eman zuen. Izan ere, arazo zientifiko konplexuei heldu nahi izan die bere ikasketak burutu zituenetik.

Prozesu guztia eskaera batekin hasi zen, izan ere, hau bera aurkezteko zenbait baldintza bete behar dira. Hala nola, ESA-ren kide diren 22 herrialdeetako baten nazionalitatea izatea, altuera eta pisu jakin bat, ingeles maila altua, proba mediku guztiak pasa eta gutxienez 3 urteko lan-esperientzia arlo zientifikoan.

Lehen fase horretan, 1500 pertsona soilik izan ziren hautatuak; horietatik 67 Espainiarrak izan ziren.

2021ko irailean hasi zen azterketa proba Alemaniako ESA-ren egoitzean. Fase honetan banakoak ebaluatzen ziren eremu guztietan. 11 orduko azterketak egiten zituzten (matematika, fisika, ingelesa, biologia...) , non arazo nagusia denbora zen . Hare gehiago , kalkulagailurik gabe. Ikusmen eta entzumen memoriako probak ere bazituzten. Horien artean , aipagarriena hau litzateke: Ingelesez, ahots bat abiadura azkarrean zenbaki serie bat diktatu eta gelditu ahala, zenbaki serie guztia alderantzizko ordenean erreproduzitu behar zen.

Zentzu guztietan astunak eta neketsuak ziren probak . Hori gutxi balitz , azterketa guztien ostean , beste azterketa berriak jartzen zizkieten (espero ez zituztenak) eta horren ostean ez zieten inongo erantzunik ematen. Hau da, desesperatzeratzeko prozesu luze bat, pertsonak presiopean nola funtzionatzen duten ikusteko.

Denbora pasa ahala, beste proba asko jasan behar zituzten (psikologikoak, talde dinamikak...) , eta harrigarria dirudien arren, pertsonen arteko lehiakortasuna ; kidetasuna bihurtzen zen . Haien artean laguntza emanez une oro.

Hautaketa-prozesua hilabetekoa izan zen, non pertsonak mentalki, fisikoki, talde-dinamiketan eta indibidualki ebaluatu egiten ziren.

Baldintza garrantzitsuenetako bat proba guztiak gainditzea zen, hau da, hobe zen 5 batekin azterketa guztiak gainditzea; guztietan 10, proba bakar batean izan ezik, hor deskalifikatzen baitzuten jendea.

Azken probetako batean 50 hautagai baino ez ziren geratzen (horietatik 17 ESA-ren astronauta promozio berria izateko hautatuak izan ziren, haien artean Sara García Alonso erreserba plazarekin). Europako espazio-agentziako zuzendari nagusiarekin egindako elkarrizketa bat izan zen. Sarak, betidanik azpimarratu izan du jatorra izatea gauzarik garrantzitsuenetako bat izan zela, iada bertara iritsitako gutxiak, azken finean , prest baitzeuden bere postuan egoteko.

Azkenean, 2022ko azaroaren 22an, ESA-k bere astronautak aurkeztu zituen Parisen. Sara García Alonsoren eta bere kideen bizitza guztiz aldatu zuena.

Etorkizunari Begira:

Gaur egun, astronauta berri honen bizitza proiektua, bi minbizi motaren aurkako farmako bat garatzea da (biriketakoa eta pankreakoa), honek gaixo kopuru handi bati eragiten dio eta.

Etorkizunera begira, bere lehen misioa Nazioarteko Espazio Estaziora joatea izango zen, kasu ezin hobe batean. Bere lana, operario tekniko gisa jardutea izango litzateke, lurretik egindako esperimentu guztiak garatuz. Berak dio, ikaragarria irudituko zitzaioela bizitza aurkitzea gure planetatik kanpo, eta irrikan dago Lur planetatik kanpo ateratzeko misio batean parte hartzeko.

Erreferenterik ezean, Sara, erreferente handia da gaur egun zientziaren eta ikerketaren munduan aritzea amesten duten milaka haurrentzat. Gaur egun, autosuperazioaren eta ahaleginaren sinbolo bihurtu da.

BIBLIOGRAFIA:

[ESA - Sara García Alonso](#)

[The Wild Project #271 - Sara García Alonso \(Astronauta\) | Toda la Verdad Sobre Vivir en Marte \(youtube.com\)](#)

[Sara García, la leonesa que viajará al espacio: "Aunque parezca ingenuo, lo más importante para ser astronauta es ser gente maja" | Ciencia \(elmundo.es\)](#)

https://www.bing.com/search?q=MUY+INTERESANTE+SARA+GARCIA&cvid=bdae09f8a57a4974a4fe6c1cc57aa9f8&gs_lcrp=EgZjaHJvbWUvBggAEEUYOTIGCAEOABhAMgYIAhAAGEAvBggDEAAAYODIGCAOQABhAMgcIBRBFGPxVogEINDQwOGowajmoAgSwAgE&FORM=ANABO1&DAFo=1&PC=ACTS